

«Erronka ederra da»

Joxean Muñozek gizartearekin eta gizartearentzat egin nahi du Donostiako Tabako Fabrikako Kultura Garaikidearen nazioarteko zentroa

Ainara Gorostitzu - DONOSTIA

«Kemenez eta gogo handiz» hartu du Joxean Muñozek (Donostia, 1957) Tabako Fabrikako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren (KGNZ) zuzendaritza. «Egitasmo benetan ederra delako eta molde berriko proiektua hezuramaitzea erronka ederra delako», azaldu zuen atzo iluntzean KGNZko Administrazio Kontseiluarekin lan hitzarmena sinatzeko egindako bileraren ondoren. Administrazio Kontseilua Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Diputazioko eta Donostiako Udaleko ordezkariak osatzen dute. Lanean hasi aurretik, Muñozek oso argi dauka zuzendaritza batzordearen lan egiteko bidea zein izango den: «Urrats guztiak gizarteratu egin behar ditugu, egitasmo hau gizartearentzat eta gizartearekin batera egin behar baitugu». Oso argi du, halaber, zer izango den etorkizuneko Tabako Fabrika: «Kulturaren ikuspegi berri batekin kultur esparru asko jorratuko ditu, XXI. mendean XXI. menderako pentsaturiko zentroa izango da, iragan gutxi duena eta aurrera begiratuko duena».

Joxean Muñozek KGNZren zuzendari nagusi kargua hartzearekin batera, Iñaki Galarragak (Bilbo, 1944) Arkitektura zuzendaritza hartu zuen atzo. Zuzendaritza batzordeko hirugarren kidea Santi Eraso da (Tolosa, 1953), Artelekuren egungo arduraduna, edukietako zuzendari izendatu dute bera, baina ezin izan zuen bilerara agertu, Bartzelonan baitago. Administrazio Kontseiluarekin Muñozek eta Galarragak egin zuten bileran zuzendaritza batzordea ofizialki onartu, bere funtzioak zehaztu eta hitzarmena sinatu zuten, Muñozen, Erasoren eta Galarragaren ekarpenak jaso ondoren.

Galarragaren aburuz, «Administrazio Kontseiluak balentria handia izan du gu bezalako jende normala horrelako proiektu baten buru jartzean». Behin kargua harturik, Galarragaren lehen lana «eraikina deskubritzea» izango da, «handia eta hotsandikoa da, baina ez Donostiako gida turistikoetan agertzeko modukoa, kultur proiektu hau gauzatzeko aproposa da». Zuzendaritzak «anbizio guztiarekin baina zuhurtzia guztiarekin» egingo du lan, Galarragak aurrerratu duenez.

Europako kulturgintzan erreferentzia

Zuzendaritza batzorde osatu berriak 1912an tabakoa egiteko sortu zen fabrikaren eraikina «Europar lehiakor eta erreferentzia gune izan behar duen kultur garaikidearen zentro» bilakatu beharko du, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburu eta atzotik aurrera KGNZaren Administrazio Kontseiluko lehendakariaren arabera. Azkarateren hitzetan, «EAEn kultur alorrean dagoen hutsune handi bat» betetzera dator Tabako Fabrika: «Orain arte museoak eduki ditugu, eta erakustez arduratu gara. Hemendik aurrera, berriz, sormen artistiko eta literarioa eta batik bat

irudiari loturikoa sustatu behar dugu, sormenari dagokion hutsunea beteko du Tabako Fabrikak».

Lan horretan Bearing Point kontsultorak egindako eta Administrazio Kontseiluak onartutako proiektua izango du zuzendari batzordeak abiapuntu, baina Kultura Sailburuak aurreratu duenez, zuzendariek «askatasun osoa» izango dute KGNZ «ikusten duten beharren arabera kudeatzeko. Ez diegu inolako baldintzarik jarriko». Beraz, Bearing Pointen aurreproiektuak Euskadiko Filmategia, Euskadiko Liburutegia edota Ordoñez Falcon Argazki Fundazioa bertan joango direla dioen arren, Azkarateren arabera, ezin da hala izango denik ziurtatu. Zuzendaritza batzordeak aurten 2.550.000 euroko aurrekontua (erakunde bakoitzak 850.000 euro jarriko du) izango du lanean hasteko. Aurrekontu horretan eraikinean egin beharreko inbertsioak eta gastuak sartuko dira.

Liskarrez beteriko ibilbidea

Muñozek, Galarragak eta Erasok osaturiko zuzendaritza batzordea aukeratzea «eztabaida gogorren ondoren» etorri da Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako ahaldu nagusi eta Administrazio Kontseiluaren orain arteko lehendakariaren arabera. Ziklo hori, ordea, bukatu da, Txabarriren hitzetan, «liskar gogorren ondoren, martxan baita KGNZ». Liskar horiek batik bat Donostiako Udalarekin izan ditu Txabarrik, Udaleko alkate Odon Elorzak aitortu zuenez.